
ZINEUSKADI

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta
genero-ikuspegirako plana bere jardueretan

2023-2026



2022ko azaroa

AURKIBIDEA

TESTUINGURU ARAUEMAILE ETA ESTRATEGIKOA, ETA ZINEUSKADIREN EGUNGO EGOERA	3
PLANAREN HEDADURA.....	5
PLANAREN JARRAIPEN ETA EBALUAZIO BATZORDEA.....	5
ZINEUSKADIN EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA GENERO IKUSPEGIRAKO I. PLANA	6
GOBERNANTZA ARDATZA	7
ERAGINA ZINEUSKADIREN JARDUERETAN	9

TESTUINGURU ARAUEMAILE ETA ESTRATEGIKOA, ETA ZINEUSKADIREN EGUNGO EGOERA

Kulturaren eta arte- eta kultura-ekoizpenaren esparruak ez du alde batera uzten emakumeen eta gizonen berdintasuna bere adierazpen guztietan ziurtatzea bilatzen duten politika esplizituak ezartzeko beharra. Emakumeen presentzia, jasotzen duten ikusgarritasuna eta aintzatespena dira modu kontzientean eta genero-ikuspegiarekin landu behar diren alderdietako batzuk.

Horretarako, apustu politiko eta teknikoak daude euskal eremuan, identifikatutako desberdintasunei eta abian jarri behar diren lan-ildoetarako buruzko informazioa ematen duten tresnak eskaintzen dituztenak. Hala, arau- eta programa-erreferente hauek eragiten diote ZINEUSKADIRi:

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko 4/2005 Legea.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko 4/2005 Legea

Berariaz, kulturaren emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasun eraginkorra sustatzeko neurri jakin batzuk hartzeko beharra jasotzen du legeak. *Kultura-jarduerak 25. artikulua* gogorarazten du ezin zaiola inolako laguntzarik eman sexuagatiko bereizkeria eragiten duen edozein kultura-jarduerari, eta berdintasuna eta estereotipoak gainditzea bilatzen duten jardueretan parte hartzea sustatu behar du.

Zehatzago, artikulua horrek berak ezartzen du euskal administrazio publikoek – horientzat ZINEUSKADIK bere gain hartzen du bertan eskuordetutako funtzio publiko jakin batzuk betetzea – sustatu behar dutela emakumeek kulturari egiten dizkioten ekarpenak ikusaraztea eta emakumeen presentzia sustatzea arte eta kultura arloko erakustaldi eta ekoizpenetan eta, bereziki, ordezkariak txikia duten lekuetan. Eta ezartzen du, beste neurri batzuen artean, berariazko ekimen eta laguntza publikoak garatu beharko direla edo daudenak egokitu beharko direla. Hori dela eta, ZINEUSKADI tresna bat da, euskal administrazio publikoak helburu horietara bideratutako neurri guztiak abian jarri ahal izan ditzan.

Eta ezin da kanpoko erakunde bat izan, ezta lege-ordenamendu honek planteatzen dituen gainerako neurrietatik kanpo estatistikak eta azterketak sortzeari, garatutako programen eta jardueren generoaren araberrako inpaktuaren ebaluazioari eta abarri dagokienez ere, gai horiek dagokion administrazio publikoari helarazi behar baitizkio, 3.,

16. eta 18.4 artikuluen arabera –botere publikoekin lankidetzakontratuak edo - hitzarmenak sinatzen dituzten, horien partaidetza duten edo laguntzen edo dirulaguntzen onuradunak diren erakunde pribatuei aplikatu beharreko artikulua–.

PLANAREN HEDADURA

ZINEUSKADiko emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta genero-ikuspegirako I. Planak 2023-2026 denbora-tartea izango du.

Plan hori behar bezala ezartzeko behar diren baliabide guztiak erabiliko dira.

PLANAREN JARRAIPEN ETA EBALUAZIO BATZORDEA

I. Planaren jarraipen eta ebaluazio egokia egiteko, ZINEUSKADiko Zuzendaritza Batzordea bera arduratuko da jarraipen eta ebaluazio hori egiteaz.

- ZINEUSKADiren Presidentetza.
- ZINEUSKADiren koordinakundea.
- Sektoreko 2 ordezkari, lau urtean behin txandakatzen direnak.

Planaren Jarraipen eta Ebaluazio Batzordearen eginkizunak, batez ere, hauek dira:

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana onartzea.
- Urteko betearazpen-planak onartzea.
- Planaren ezohiko proposamenak edo aldaketak onartzea.
- Plana gauzatzeko adierazleen jarraipena egitea sei hilean behin.
- Planaren tarteko ebaluazioa eta azken ebaluazioa egitea.

Horretarako, sei hilean behin ohiko bilerak egingo dira, eta, beharrezkotzat joz gero, ezohiko bilerak ere deitu ahal izango dira. Jarraipen- eta ebaluazio-bileren akta egingo da.

Plana ezartzeko beharrezko baliabideak izango dira.

ZINEUSKADIN EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA GENERO IKUSPEGIRAKO I. PLANA

ZINEUSKADiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Planaren egitura eta helburuak honako hauek dira:

GOBERNANTZA ARDATZA

1. HELBURUA.- Lan-testuinguru egokia sustatzea, ZINEUSKADik emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko politika publikoak bere jardun-eremuan hedatzen lagun dezan.

2. HELBURUA.- ZINEUSKADiko pertsonen kudeaketa sustatzea, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan egungo lan-harremanen esparrua hobetzeko.

ERAGINA ZINEUSKADIREN JARDUERETAN

3. HELBURUA.- ZINEUSKADiren jardueren genero-eraginari arreta ematea xede duten jarduerak sustatzea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen 25. artikulua aginduari erantzunez, betiere, berdintasunaren aldeko kultura-politikak sustatzeari eta emakumeen ekoizpen artistikoak eta kulturalak agertzeari, ikusarazteari eta aitortzeari dagokionez.

GOBERNANTZA ARDATZA

1. HELBURUA.- Lan-testuinguru egokia sustatzea, ZINEUSKADik emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko politika publikoak bere jardun-eremuan hedatzen lagun dezan.

Ekintza	Adierazleak	Gutxi gorabeherako data
1. Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailarekin lankidetzan aritzea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik Gabe Bizitzeko 4/2005 Legea betetzeko egiten diren jardueretan eta Sailak arlo horretan dituen programa-ildoetan, Berdintasunerako Plan hau indarrean dagoen bitartean.	Bigarren mailako jarduerak	
2. ZINEUSKADiren komunikazio-euskarriak zuzentzea, hizkera ez-sexista erabiltzeko: <ul style="list-style-type: none">• Webgunea,• ZINEUSKADIREN laguntza propioen deialdiak.• (...).	Komunikazio-euskarri egokituak.	

2. HELBURUA.- ZINEUSKADiko pertsonen kudeaketa sustatzea, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan egungo lan-harremanen esparrua hobetzeko.

Ekintza	Adierazleak	Gutxi gorabeherako data
3. Hobekuntzak egitea ZINEUSKADik (Gipuzkoako bulego eta bulegoen hitzarmen kolektiboa) hartutako lan-harremanen esparruan, batez ere lantzenboren erabilerarekin eta kontziliazioarekin lotutako alderdietan.	Egokitutako hobekuntzak.	
4. ZINEUSKADiko pertsonak Euskadin eta lan-bidaietan izan ditzaketen sexu-jazarpenen eta/edo sexuan oinarritutako jazarpenen aurrean jarduteko protokoloa egitea.	Protokoloa onartuta	

ERAGINA ZINEUSKADIREN JARDUERETAN

3. HELBURUA.- ZINEUSKADIREn jardueren genero-eraginari arreta ematea xede duten jarduerak sustatzea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen 25. artikulua aginduari erantzunez, betiere, berdintasunaren aldeko kultura-politikak sustatzeari eta emakumeen ekoizpen artistikoak eta kulturalak agertzeari, ikusarazteari eta aitortzeari dagokionez.

Ekintza	Adierazleak	Gutxi gorabeherako data
<p>5. ZINEUSKADIREn checkist propioa egitea (Bechdel-en testean eta antzekoetan oinarrituta). Horrek ekoizleei, eta ondoren, sustapenaren erakunde kudeatzaileei lagunduko die horiek ebaluatzen, betiere, kameren aurrean eta atzean emakumeei emandako protagonismoa eta horiek duten presentzia maila ezagutzeko, baita sormen artistikoaren berri izateko ere.</p>	<p>Checklist-a eginda</p>	
<p>6. Euskarazko filmen estreinaldi komertzialak sustatzeko ekimenei laguntzeko beken deialdia, areto eta zirkuitu alternatiboetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Emakidarako irizpideak berriz aztertzea eta kuantifikatzea, eta berdintasunarekin eta genero-ikuspegiarekin lotutakoak bi irizpide motatan banatzea: <ul style="list-style-type: none"> ◦ Bechdelen testa, filmeko pertsonaia femeninoari begira. 	<p>Irizpide berriak txertatuta.</p> <p>Onuradun kop.</p>	
<p>7. Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo egiten diren merkatuetan, azoketan eta ekimen profesionaletan parte hartzeko ikus-entzunezkoen arloko profesionalentzako laguntza-deialdia</p> <ul style="list-style-type: none"> • baloratzeko irizpideak eta/edo gastu-kontzeptu berriak sartzea: <ul style="list-style-type: none"> ◦ Guraso bakarreko familia dutela egiaztatzen duten pertsonen kontziliaziorako laguntza ematea. 	<p>Irizpide berriak txertatuta.</p> <p>Onuradun kop.</p>	
<p>8. Fikziozko eta animaziozko zinemarako film luzeen eta sorkuntza: dokumentalen sustapenerako eta</p>	<p>Irizpide berriak txertatuta.</p>	

<p>publizitaterako laguntzen deialdia:</p> <ul style="list-style-type: none"> • emakidarako irizpideak berriz aztertzea eta kuantifikatzea, eta berdintasunarekin eta genero-ikuspegiarekin lotutakoak bi irizpide motatan banatzea: <ul style="list-style-type: none"> ◦ Proiektuan emakumeek duten presentziarengatik. 	Onuradun kop.	
<p>9. Fikziozko eta animaziozko zinemarako film luzeen eta sorkuntza: dokumentalen sustapenerako eta publizitaterako laguntzen deialdia:</p>	<p>Irizpide berriak txertatuta.</p> <p>Onuradun kop.</p>	
<ul style="list-style-type: none"> • Partida ekonomiko edo poltsa bat ziurtatzea, emakumeek zuzendutako proiektuen artean banatzeko. 		
<p>10. Fikziozko eta animaziozko zinemarako film luzeen eta sorkuntza: dokumentalen sustapenerako eta publizitaterako laguntzen deialdia:</p> <ul style="list-style-type: none"> • proiektuan emakumeen presentzia justifikatzeko modua berriz aztertzea, emakumeek betetzen dituzten karguetan edo roletan (zuzendariak, gidoilariak, produktore exekutiboak) islatutako produkzioetan berdintasunarekiko konpromisoaren ebidentziak biltzea fidagarriagoa izan dadin. 	<p>Irizpide berriak txertatuta.</p> <p>Onuradun kop.</p>	
<p>11. Emakumeen elkarteei, merkatuei eta/edo ekimenei laguntzea, baldin eta ikus-entzunezko industriaren atal propioa badute, emakumeen ekoizpen artistikoa sustatzeko jarduera espezifikoak badituzte edo ikuspegi feminista badute.</p>	<p>Emandako laguntzak edo baliabideak.</p> <p>Erakunde edo ekimen kopurua.</p>	
<p>12. Kimuak Programa:</p> <ul style="list-style-type: none"> • epaimahaiaren erabakian emakumeek zuzendutako film laburren ehunekoari eustea. 	<p>Emandako laguntzak edo baliabideak.</p>	
<p>13. Mentoring Programa mantentzea, emakume parte-hartzaileen bi urtez behingo jarraipena eginez eta sektorean duten presentzia baloratzuz.</p>	<p>Programa badago bai/ez.</p> <p>Emakume parte-hartzaile kopurua.</p>	
<p>14. Europa Creativa bulegoa:</p> <ul style="list-style-type: none"> • antolatutako tailerretan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua mantentzea. 	<p>Emakume eta gizonen kopurua.</p>	
<p>15. Ikus-entzunezkoen sektorean emakumeak sustatzeko politikak ezartzearekin lotutako nazioarteko topaketetan parte hartzea (adibidez, Quebec...).</p>	<p>Parte hartutako topaketak.</p>	

<p>16. Berdintasun Batzordeak/Zuzendaritza Batzordeak Europako lankidetzaren esparruko lantaldearen networking topaketetan jasotako ekimenen edo jardunbide egokien dosierra aztertzea, Berdintasunerako Plan honetan ekintza berriak sartzeko aukera egon dadin.</p>	<p>Azterlana egin da bai/ez.</p> <p>Ekintza berriak bai/ez.</p>	
<p>17. ZINEUSKADiren laguntza edo dirulaguntzekin batera, enpresa onuradunek (ekoizleek, banatzaileek...) beren barne-eremuan sexu-jazarpena eta/edo sexuagatiko jazarpena prebenitzeko eta jarduteko protokoloa eduki behar dute, Emakundek proposatutako ereduaren oinarrituta.</p>	<p>Irizpide berriak txertatuta.</p>	
<p>18. Euskal Administrazio Publikoak sortzen dituen eta kultura-sektorerara zuzentzen diren tresnei edo protokoloei zabalkunde ematea: berdintasunerako planak egiteko tresnak, jaialdietan eraso matxisten aurrean jarduteko protokoloak, etab.</p>	<p>Zabaldutako tresnak.</p> <p>Publiko hartzailea.</p>	
<p>19. ZINEUSKADiren jardueren genero-eraginari buruzko urteko barne-txostena eta bi urtez behingo kanpo-txostena egitea.</p>	<p>Txostenak egin dira bai/ez.</p>	